



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 – 01476 ARESPALDITZA-AIARA

(ARABA)

Teléfono: 945399013 Fax: 945399331

Email: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus)

[www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus)

### MAHAIBURUA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

### ZINEGOTZIAK.:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiaino and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

### AIARAKO UDALAK 2018ko UZTAILAREN 18an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko uztailaren hemezortzian, hamalauak eta bost direnean, Udaltzaria osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

### EZ DA BERTARATU:

Josu Artetxe Arana jn.

### IDAZKARIA:

M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongiatorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

#### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko uztailaren 10ean eginiko ezohiko bilkuraren akta.-**

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak adierazi du aurreko bilkurako akta onestearen gaia landu behar dela, 2018ko uztailaren 10eko ezohiko bilkurarena, deialdiarekin batera bidali zena.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak hitz egin du, eta adierazi du hainbat ohar egin behar dituela aipatutako aktaren inguruan. Lehenik, 2018ko udal-aurrekontua onesteko puntuari dagokionez, bere izena Iraida dela, eta berak AIARA BATUZen izenean hitz egin zuela, eta ez Iratxe Parro zinegotzi andreak. Idazkari andreak barkamena eskatu du egindako akatsagatik.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ), jarraian, esan du Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak bere taldeak aurrekontuari egindako zenbait zuzenketa aurkeztu ondoren, aktan jasota dagoela hark adierazten duela oso berandu dela aurrekontuak aurkezteko, eta Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak adierazi du adierazpen hori ez dela ulertzen aktan ez bada jasotzen alde aurretik AIARA BATUZek horri buruz esandakoa. Adierazi du bere taldeak esan zuela ez balira aurrekontuak hain berandu aurkeztu zuzenketa gehiago egin ahal izango zirela; adibidez, San Prudentzioko festen gastuak txikitzea, edo euskarazko prestakuntzarako erakunde pribatuei emandako diru-laguntzak, hezkuntza publikoaren barruan dago-eta. Horrez gain, esan du jarraian adierazi zutela ea zortea zuten idazkari berriarekin, gobernu-taldeari aurrekontua lehenago egiteko eskatzearen zentzuan.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ), bukatzeko, esan du Lauren Uria Peña zinegotzi jaunaren (EH-BILDU) parte-hartzeari dagokionez, talde horrek abstentzioa eman zuenean, badirudiela abstentzio hori Barrena kaleko proiektuarekin dagoela lotuta, baina uste du ez dela horrela, nahiz eta parte-hartze horren zentzua Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak berak baieztatu beharko lukeen. Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak adierazi du, hain zuzen ere, bere abstentzioa aurretik esandako guztiagatik zela.

Era berean, Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du, aurrekontuak geroago aurkezteari buruz, alkateak idazkari-aldaketari egotzi diona, haiek esan zutela aurreko legegintzaldian, BILDUK gobernatzan zuenean, berandutzearen erantzukizuna gobernu-taldeari egozten eta eskatzen zitzaioela, eta ez idazkariari.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak adierazi du ez dela saiatu bere erantzukizuna ukatzen.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du berak 2018ko ekainaren 25eko osoko bilkuraren lehen puntuan, aurreko aktaren onespina lantzen ari zirenean, HAPoren dokumentazio-eskaeraren inguruan galdetutakoa hitzez hitz jasotzeko eskatu zuela, grabazioaren momentuari erreferentziak ere emanez, eta, halere, ez dago hitzez hitz jasota. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak adierazi du kontua konpon daitekeela Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak esandakoak hitzez hitz jasota galde-eskeen txandan.

Idazkari jaunak adierazi du udalbatzako kideek bilkuran esandakoei dagokienez legeriak soilik mintzaldiak aktan labur jasotzea baizik ez duela aurreikusten. Gehitu du, dena dela, zinegotzi batek nahi badu bere mintzaldiren bat hitzez hitz aktan jasotzea, prestatuta eraman beharko dutela irakurtzeko eta idazkariari emateko, hark eman bezala jarri ahal izateko, komatxo artean; adierazi du hori hitz egiten duten momentuan egin behar dela, ez hurrengo bilkuran, aurreko aktaren onespina lantzean.

Era berean, idazkariak adierazi du EH-BILDU taldeak aurrekontuei egindako abstentzioari dagokionez, berak aktan jaso nahi izan zuela Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi zuela bere taldeak abstentzioa emango zuela, nahiz eta aurrez esandako guztian ados ez egon, aurrekontuan zeuden zenbait proiektu beharrezkoak zirelako udalerrarentzat.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak adierazi du interpretazio hori zuzena dela.

Jarraian, bozkatu egin da, eta AIARA BATUZ taldeko kideek eta EH-BILDU taldeko kideek adierazi dute aktaren alde bozkatzen dutela, adierazitako zuzenketekin.

Beraz, bertaratutako udalbatzako kideek aho batez adostu dute aipatutako akta onestea, adierazitako zuzenketekin.

**2.- Zerbitzu publikoak emategatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirol-instalazioak erabiltzekoak egitegatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzea.** Jarraian, zerbitzu publikoak emategatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirol-instalazioak erabiltzekoak egitegatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzearen inguruko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria informazio-batzordeak 2018ko uztailaren 10ean egindako bilkuran aldeko txostena egindakoa; honela dio:

**“Zerbitzu publikoak emategatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirol-instalazioak erabiltzekoak egitegatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzeko erabaki-proposamenarekin lotuta, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria informazio-batzordeak 2018ko ekainaren 12an egindako bilkuran aldeko txostena jaso zuena, beharrezkotzat jo da beste atal bat gehitzea aipatutako II. eranskinari, estaldura emango diona noizean behin emango diren trikitixa- eta pandero-eskolen kobrantzari, diziplina horietarako nahikoa eskatzaile baldin badaude.**

Era berean, eta aintzat hartuta trikitixa eta panderoaren musika-diziplinek ez dutela aukera ematen talde bakoitzean ikasle asko egoteko, garestiagoak dira, eta beharrezkoa da II. eranskinari epigrafe bat gehitzea diziplina jakin horietarako.

Horregatik, ekonomia prozesal eta administrazio-eraginkortasun handiagoa lortzeko, proposatzen da bi aldaketak bakar batean biltzea; honela geratuko litzateke:

Udalbatzak honako ERABAKI hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.-** Zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirol-instalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen honako aldaketa hau hasiera batean onestea:

1.- Ordenantzaren II. eranskina aldatzea, honela zegoena idatzita:

## **"II. ERANSKINA**

### ***KULTURA ETA KIROL SAILAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA TAILERRAK EMATEAGATIKO ZERBITZUAREN TASA***

#### **TARIFA:**

1.- Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da:

- Urtean 30 orduko ikastaroak emateagatik: 37,50 € urtean.
- Urtean 45 orduko ikastaroak emateagatik: 56,25 € urtean.
- Urtean 60 orduko ikastaroak emateagatik: 75,00 € urtean.
- Urtean 98 orduko ikastaroak emateagatik: 125,50 € urtean.

2.- Tasa sortuko da, osorik, Udalak ematea erabaki duen ikastaro bakoitza hasi baino lehen, baldin eta gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 udalerrian erroldatuak badira.

3.- Tasaren ondoriozko zenbatekoa erabiltzaileek (edo haien gurasoek edo adingabeen legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu-zenbakian helbideratuta ordainduko da.

Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik ikastaroa hasi ondoren.

4.- Plaza hutsak geratuz gero, beste ikasle batzuk sartu ahal izango dira dagoeneko hasita dagoen edozein tailerretan. Horrelakoetan, matrikularen zenbateko osoa ordainduko da, edo bestela, zenbatekoaren erdia, ikasleak ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira tailer horretan.

#### **HOBARIAK:**

1.- Hobari bat emango zaie, aurreko ataleko lehenbiziko puntuan aipatzen diren tasetan, langabezian dauden pertsonari edo ikasle-txartela daukatenei.

Langabezia-txartela edo ikasle-txartela aurkeztu beharko da matrikula egiteko unean.

Hona hemen zer tasa hobaridun ordaindu beharko dituzten:

- Urtean 30 orduko ikastaroak emateagatik: 33,00 € urtean.
- Urtean 45 orduko ikastaroak emateagatik: 49,50 € urtean.
- Urtean 60 orduko ikastaroak emateagatik: 66,00 € urtean.
- Urtean 98 orduko ikastaroak emateagatik: 107,80 € urtean.

#### **EZ ORDAINTZEA:**

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.”

Proposamena aldatu ondoren, ordenantza horrela geratuko da idatzita:

## **“II. ERANSKINA**

### **KULTURA ETA KIROL SAILAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA TAILERRAK EMATEKO ZERBITZUAREN TASA**

#### **TARIFA:**

*1.- Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da:*

- *Ikastaroak emateagatik (musika-diziplinak kenduta): 1,5 €/ordu.*
- *Aiarako Trikitixa Eskola:*

*a) Matrikula musika-diziplinako 100 euro/hil.*

*b) Bi pertsonak partekatutako trikitixa-instrumentuaren eskola ematea: 35,00 euro/hil.*

*c) Pandero-eskola partekatua ematea. 4-6 ikasleko taldeak, instrumentuka eta/edo adinka eta/edo ikaskuntza-mailaren arabera banatuak: 20 euro/hil.*

*2.- Tasa sortuko da, osorik, Udalak ematea erabaki duen ikastaro bakoitza hasi baino lehen, baldin eta gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 udalerrian erroldatuak badira.*

Musika-diziplinen kasuan, hil bakoitzaren hasieran egin beharko da ordainketa, banku-helbideratzearen bidez.

*3.- Tasaren ondoriozko zenbatekoa erabiltzaileek (edo haien gurasoek edo adingabeen legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu-zenbakian helbideratuta ordainduko da.*

*Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik ikastaroa hasi ondoren.*

*4.- Plaza hutsak geratuz gero, beste ikasle batzuk sartu ahal izango dira dagoeneko hasita dagoen edozein tailerretan. Horrelakoetan, matrikularen zenbateko osoa ordainduko da, edo bestela, zenbatekoaren erdia, ikasleak ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira tailer horretan.*

#### **HOBARIAK:**

*1.- Hobari bat emango zaie, aurreko ataleko lehenbiziko puntuan aipatzen diren tasetan, langabezian dauden pertsonen edo ikasle-txartela daukatenei.*

*Langabezia-txartela edo ikasle-txartela aurkeztu beharko da matrikula egiteko unean.*

*Hona hemen zer tasa hobaridun ordaindu beharko dituzten:*

- *Ikastaroak emateagatik: 1,2 €/ordu.*

#### **EZ ORDAINTZEA:**

*Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.*

#### **AZKEN XEDAPENA:**

*II. eranskin hau, Kultur eta Kirol Sailak antolatutako ikastaro eta tailerrak emateko zerbitzuaren tasa arautzen duena, argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta hura aldatu edo indargabetzea onartzen den arte".*

**Bigarrena.-** Jendurrean jartzeko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, eta osoko bilkurak aztertuko ditu behin betiko onartzean. Hasierako onarpenari ez bazaio alegaziorik aurkezten, behin betikotzat joko da hasiera batean onetsitako erabakia, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

**Laugarrena.-** Ordenantzaren aldaketa horiek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bilkurara bertaratutako zinegotzi jaun/andreek aho batez adostu dute erabaki hau hartzea:

**Lehenengoa.-** Zerbitzu publikoak emateagatiko, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, ongizate komunitariokoak eta pertsonak eta jabetzak babestekoak eta kirol-instalazioak erabiltzekoak egiteagatiko tasen ordenantza arautzailearen II. eranskina aldatzeari hasierako onarpena ematea, jasota dagoen erabaki-proposamenean planteatutako moduan.

**Bigarrena.-** Jendurrean jartzeko 30 egun baliouduneko epea irekitzea, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, eta osoko bilkurak aztertuko ditu behin betiko onartzean. Hasierako onarpenari ez bazaio alegaziorik aurkezten, behin betikotzat joko da hasiera batean onetsitako erabakia, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

**Laugarrena.-** Ordenantzaren aldaketa horiek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean".

**3.- Udalbatza osoari jakinaraztea aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak egindako txostena, diruzaintzako soberakinaren erabilerari buruzkoa.-**Jarraian, Udalbatzari 2018ko uztailaren 5eko Kontu-hartzailearen txostenaren berri eman zaio, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearekin lotuta, diruzaintzako soberakina kreditu gehigarri bat finantzatzeko erabiltzeagatik. Honela dio:

### **“KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA**

**GAIA:** Aurrekontua aldatzea, gastu orokorretarako diruzaintzako soberakinaren kargura.

Aiarako Udalaren Kontu-hartzailezako karguari dagozkion eginkizunen eta 38/2013 Foru Arauan (abenduarien 13koa, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa, 17/2014 Foru Arauak aldatutakoa) diruzaintzako soberakina erabiltzeari buruz sartutako aldaketak direla-eta, soberakinaren kargura kreditu bat aldatzea onetsi ahal izateko beharrezkoa da Kontu-hartzailezaren txosten bat eramatea Udalbatzara, eta hor jaso egin behar da egonkortasun-helburua ez dela betetzen. Hori dela-eta, honako txosten hau bidali da, bi eranskin dituen:

- I. eranskina: soberakina hainbat kreditu gaitzeko erabiltzeko proposamena.

- II. eranskina: Kontu-hartzaitzaren txostena, diruzaintzako soberakinarekin gastuak finantzatzearen bidez egonkortasuna betetzeko.

## **I. ERANSKINA: SOBERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA**

GASTATU GABEKO DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 2017KO LIKIDAZIOKO GASTU OROKORRETARAKO: **301.941,82 € (gainerakoa 2017an baimendutako kreditu-soberakinak sartzeko erabili da, ez direnak ekitaldi honetan gastatu eta kreditu gehigarriak)**

**ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 5.878,94 €**

LUIAONDOKO 3. POLIGONOKO 1333 LURSAILEKO ERABILERA PUBLIKOKO JARDUKETETARAKO OBREN II. FASEA HANDITZEA: 5.878,94 €.

*II. ERANSKINA: IDAZKARITZA KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDOREETARAKO*

### **I. TXOSTENAREN OINARRIA**

38/2013 FAren (abenduaren 13koa, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa) 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (17/2014 FAK emandako idatzian), aurrekontu-egonkortasuneko, zor publikoko edo gastu-arauko helburua ez bada betetzen, betetzen ez duen administrazioak Plan Ekonomiko-Finantzarario bat egingo du, urte horretan bertan eta hurrengoan helburuak eta gastu-araua bete daitezten

Foru Arau beraren 7.3 artikulua, berriz, ezartzen du aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeko arrazoia gastuak diruzaintzako soberakinarekin finantzatzea bada, Plan Ekonomiko-Finantzararioa Kontu-hartzaitzaren eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten bat Udaltzari jakinaraztearekin ordezkatu beharko dela, inguruabar hori jasota, Udalaren finantza-egonkortasunaren azterketa eta ebaluazioarekin batera; hau hartuko du barne, gutxienez:

a) Erakundeen eta haren menpe dauden beste erakunde eta organismoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzio nagusiak, aintzat hartuta bai joeren bilakaera, hau da, aldaketarik gabeko politikak eta bai kontuan hartutako operako aurreikusitako neurrien eragina.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioak zein suposizio nagusitan oinarrituko diren.

d) Aurrekontu- eta finantza-egoerak diruzaintzako soberakina bukatzerako orduan.

e) Izatekotan, inbertsioaren funtzionamenduak zein eragin ekarriko dien gastu arruntei.

Txosten hori kreditua aldatzeko espedientearen zati bat izango da.

Osoko bilkuraren aktan, Kontu-hartzaitzako organoaren txostena eta euskarri moduan erabilitako beste agiriak Arabako Foru Aldundiko tokiko erakundearen inguruan eskuduna den Sailari bidaliko zaizkio, eta hark, 30 eguneko epean, beharrezko zaion informazio gehigarria eta neurri osagarriak hartzea eskatu ahal izango du. Horien artean, Plan Ekonomiko-Finantzarario bat egiteko eska daiteke, tokiko erakundearen finantza-iraunkortasuna ziurtatzeko. Arabako Foru Aldundiak berariazko ebazpenik egin gabe adierazitako epea pasatzen bada, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da:

### **EREMU SUBJEKTIBOA:**

Txosten honek Aiarako Udalean diruzaintzako soberakina erabiltzearen bidez aurrekontu-aldaketa finantzatzeak eragindako ezegonkortasun-egoera aztertzea du helburu. Haren espedientearen zati bat da txosten hau.

### **HELBURUAK:**

Aurrekontu-aldaketa diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatzeak egonkortasun-printzipioa hausten du, nahiz eta ez betetze hori ez den egiturazkoa, baizik eta koiunturala.

Horretarako, aurrekontu-magnitudeak aztertu behar dira, eta txosten honen xedea helburu hauek jasotzea da:

- Aurrezte garbi positiboa.
- Diruzaintzako soberakin positiboa.
- Ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den finkatutako zorpetze-maila.
- Finkatutako aurrekontu-egonkortasuna, superabitarekin edo finantzatzeko gaitasunarekin (SEC terminoetan).
- Gastu-araua betetzea.

38/2013 Foru Arauaren (abenduaren 13koa, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa) 7. artikuluko 3. atalean ezarritakoari jarraikiz (17/2014 FAK emandako idatzian), txosten hau honela egituratuko da:

- 1.- Egungo egoeraren diagnostika: erakundearen **aurrekontu-egonkortasuneko helburuak** betetzen diren edo ez aztertuko da:
- 2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak**
- 3.- Inbertsioaren funtzionamenduak **zein eragin ekarriko dien gastu arruntei.**

## **II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAK**

Onetsitako azken likidazioan lortutako datuen artean, honako datu hauek nabarmentzen ditugu:

<b>MAGNITUDEA</b>	<b>ZENBATEK</b>	<b>BETETZEA/EZ-BETETZEA</b>
<b>Aurrezki garbia</b>	306.668,44 €	POSITIBOA
<b>Diruzaintzako soberakina</b>	550.133,56 €	POSITIBOA
<b>Aurrekontuaren emaitza</b>	168.908,23 €	POSITIBOA
<b>Zorpetze-maila</b>	0	
<b>Aurrekontu-egonkortasuna</b>	167.278,99 €	SUPERABITA. BETETZEA
<b>Gastu-araua</b>	+ 81.368,53 €	% 7 GEHIAGO. EZ BETETZEA. HORREN GURUAN KONTU-HARTZAILTZAK EGINIKO TXOSTENAREN BERRI EMAN ZAIO OSOKO LKURARI EZ DA BEHARREZKOA FINANTZA-PLANA

## **III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK**

Epe horretarako Plan Ekonomiko-Finantzarioan zifrak proiektatzeko aukera emango diguten aldagaiak eta neurriak zehazki definitzeko, EGOERA posible hau ezartzen da:

- Ekonomia-susperraldi bateko egoera batetik abiatzen gara, eta pentsatzen dugu tokiko erakundearen jarduera ekonomikoa mantenduko dela edo apur bat handitu; horrek ekarriko du tokiko diru-sarrerak hobetzea, bereziki TEFFFn parte hartzeagatik lortutakoak, eta zerbitzu publikoak ematea handitzea.
- Gastuei dagokienez, arlo horretako murrizketei eutsiko zaielako egoeran abiatzen gara, bai langileen gastuetarako eta bai bestelakoetarako, estatuko aurrekontu orokorretako egoeretatik eratorritakoak, eta aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzetik eratorritakoak (Gastu Araua, Gastu Muga, Finantza Egonkortasuna eta Iraunkortasuna).

## **MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.**

Abian den ekitaldian eta hurrengoan aztertutako magnitudeen bilakaera hau da:

<b>HELBURUAK</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>
<b>Aurrekontu-egonkortasuna</b>	68.196,98 €	292.710,37 €	167.278,99 €
<b>Egonkortasun/diru-sarrera ez-finantzarioen %</b>	% 2,51	% 11,92	% 7,14
<b>Gastu Araua</b>	<b>370.333,93</b>	<b>- 185.481,66</b>	81.368,53
<b>Zorpetzea</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	0
<b>Aurrezki garbia</b>	295.552,46	288.786,63	306.668,44
<b>Aurrezki garbia/diru-sarrera arrunten %</b>	% 14,19	% 13,86	% 14,19
<b>DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA</b>	440.692,28	591.367,50	550.133,56

## **IV. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA BUKATZERAKO ORDUAN.**

### **III-C.1 DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA**

Diruzaintzako soberakin positiboak epe motzerako erakundearen likidezia metatu osoa erakusten du, garai jakin batean, eskuragarri dagoena etorkizun hurbilean gastua finantzatzeko.

#### **Diruzaintzako soberakin doitua gastu orokorretarako.**

Gastu orokorretarako soberakina aurrekontuari aplikatu beharreko hartzekodunen datuekin eta ordaintzeko dauden diru-sarreraren itzultzeekin doitzen da; horrek magnitude horren irudi errealago bat ematen digu. Magnitude horrek tokiko erakundearen epe laburrerako benetako likideziaren informazioa ematen digu.

### **III-C.2 AURREZKI GARBIA.**

Aurrezki garbiak Udalbatzak duen zorpetze-gaitasunaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du gaitasunik epe luzerako mailegu-operazioei aurre egiteko. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzerako mailegu-operazioei aurre egiteko gaitasunaren informazioa ematen digu, eta zenbatekoraino eta zer baldintzatan hitzartu daitezkeen. Baina magnitude horrek erakundearen zorpetze-gaitasunaren informazio fidelagoa eman diezagun, Foru Arauak ezarritakoari jarraikiz kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzateke, hari kenduz ezohiko diru-sarrerak, behin eta berriro sartzen ez direnak.



### III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA

Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak zorpetze handiegia ren ondorioz izan daitezke, horrek finantza-karga handitzea baitakar, zeina, gainerako gastu arruntari gehituta, ezinezkoa baita erakundearen diru-sarrera arruntan bidez xurgatzea, eta, azkenean, aurrezki garbi negatibo bihurtzen da.

### III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA

Aurrekontu-egonkortasunak erakunde baten finantzatzeko gaitasunaren/beharraren berri ematen digu; horrek, zeharka, ekartzen du mugatu edo handitu egiten dela zorpetzea urtero amortizatutakoaren gainetik (SEC 95 terminoetan kalkulatuta). Erakundeak finantzatzeko beharra badu (bere gastu ez-finantzarioak bere diru-sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak badira), horrek dakar erakundeak kanpoko finantzaketa behar duela (zorpetzea), gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzatzeko gaitasuna badu (bere gastu ez-finantzarioak bere diru-sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), hori da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen tartea.

### III-C.5 GASTU-ARAUUA

Gastu Araua zerga-arau bat da, eta haren helburua da zenba daitekeen gastua mugatzea ez dadin handitu ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitakoa baino portzentaje handiagoan. Hala, aurrezki publiko handiagoa lortu ahal izango da, muga bat jarrita gastua diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera egiten ez den gastua handitzeari.

### III-D. ZENBAIT MAGNITUDEREN BILAKAERAREN ONDORIOAK

Txosten honetan jasotako suposizioen arabera aztertutako gastuen eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren proiektioei dagokienez, ondorioztatzen da aurrekontu-aldaketa diruzaintzako soberakinarekin finantzatzeko **ez dakarkiola erakunde honi egiturazko desorekarik, baizik eta desoreka koiunturala, eta berriz beteko dira ezarritako helburuak urtebeteko epean, Plan Ekonomiko-Finantzarario bat egin beharrik gabe.**

## V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK ZEIN ERAGIN EKARRIKO DIEN GASTU ARRUNTEI.

Datozen ekitaldietarako bildutako proiektioetan (III.C), zenbatesten da aurrezki arrunt garbi positiboa egongo dela; beraz, gastuaren ondorioz etorkizunean sor litekeen gastu arrunta, kreditu-aldaketa honek finantzatzeko duena, erakundeak sortutako diru-sarrera arruntek hartuko dute bere gain. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpian dago; beraz, bi datu horiek elkartuta, ondoriozta daiteke haren **etorkizuneko finantza-iraunkortasuna ez dela arriskuan jartzen.**

Gainera, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek, bere horretan, ez dutela ekarriko gastu arrunta nabarmen handitzea datozen ekitaldietan.

Txosten hau kreditua aldatzeko espedientearen zati bat izango da.

Osoko bilkuraren akta, Kontu-hartzaitzako organoaren txostena eta euskarri moduan erabilitako beste agiriak Arabako Foru Aldundiko tokiko erakundearen inguruan eskuduna den Sailari bidaliko zaizkio, eta hark, 30 eguneko epean, beharrezko zaion informazio gehigarria eta neurri

osagarriak hartzea eskatu ahal izango du. Horien artean, Plan Ekonomiko-Finantzario bat egiteko eskatzea dago, tokiko erakundearen finantza-iraunkortasuna ziurtatzeko.

Arespalditzan.-

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas.

*Elektronikoki sinatutako agiria.*”

**AINTZAT HARTU DIRA** Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Foru Arauaren (abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua) 7.1 eta 7.3 artikulak, 17/2014 Foru Arauak emandako idatzian.

Udalbatza 2018ko uztailaren 5eko Kontu-hartzailetzaren txostenaren jakinaren gainean geratu da, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearekin lotuta, diruzaintzako soberakina kreditu gehigarri bat finantzatzeko erabiltzeagatik.

**4.- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 359/2018 Dekretuaren berri ematea; horren bidez, amaitutzat ematen da, atzera botatzeagatik, 1036/2017-B ohiko prozedura. Eskatzailea Maderas Zerrabe SL da.**- Jarraian, Udalbatzari Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 359/2018 Dekretuaren berri eman zaio; horren bidez, amaitutzat ematen da, atzera botatzeagatik, 1036/2017-B ohiko prozedura. Eskatzailea Maderas Zerrabe SL da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**5.- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 360/2018 Dekretuaren berri ematea; horren bidez, amaitutzat ematen da, atzera botatzeagatik, 233/2018-B ohiko prozedura. Eskatzailea Maderas Zerrabe SL da.**- Jarraian, Udalbatzari Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 360/2018 Dekretuaren berri eman zaio; bertan, amaitutzat ematen da, atzera botatzeagatik, 233/2018-B ohiko prozedura. Eskatzailea Maderas Zerrabe SL da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**6.- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 444/2018 Dekretuaren berri ematea; horren bidez, amaitutzat ematen da, atzera botatzeagatik, 137/2018-A ohiko prozedura. Eskatzailea Maderas Zerrabe SL da.**.- Jarraian, Udalbatzari Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren 444/2018 Dekretuaren berri eman zaio; horren bidez, amaitutzat ematen da, atzera botatzeagatik, 137/2018-A ohiko prozedura. Eskatzailea Maderas Zerrabe SL da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**7.- Alkatetzaren dekretuen berri ematea:**- Jarraian, Udalbatzari 2018/250 eta 2018/303 zenbakien arteko Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, biak barne, eta hona hemen, laburtuta, haien edukia:

2018/250 ALKATETZA-DEKRETUA-- Onestea F/2018/8 zenbakiko fakturen zerrenda.

2018/251 ALKATETZA-DEKRETUA-- F.A.L. - Aparkatzeko txartela ematea (04.302-122 zenbakia)..

2018/252 ALKATETZA-DEKRETUA-- Luiaondoko kirol-pista berritzeko obrei dagokien hirigintza-txostena onartzea.

2018/253 ALKATETZA-DEKRETUA-- Menoioko A. Batzordea.- Udaletxeko barruko hormak margotzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

2018/254 ALKATETZA-DEKRETUA-- Luiaondoko Administrazio Batzordea.- Obra-lizentzia ematea eraikin bat partzialki egokitzeko.

2018/255 ALKATETZA-DEKRETUA-- Etxegoiengo A. Batzordea.- Obra-baimena ematea babes-langak jartzeko Etxegoiengo herrigunera sartzeko bidean.

2018/256 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.D.V.- Lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea Beotegin eraikitako etxebizitza bati.

2018/257 ALKATETZA-DEKRETUA-- 2018ko landako OHZ errolda onestea.

2018/258 ALKATETZA-DEKRETUA-- Menagarai-Beotegiko A. Batzordea.- Hondakinen kudeaketako fidantza itzultzea.

2018/259 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.I. C.F.- Obrak egiteko udal-lizentzia ematea etxebizitza baten inguruko espaloiak konpontzeko.

2018/260 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.J. A.M. Aparkatzeko txartela ematea (04.445-124 zk.).

2018/261 ALKATETZA-DEKRETUA-- Olabazarreko A. Batzordea.- Udalaren obra-lizentzia ematea argizatze publikoan ekipamenduak berritzeko.

2018/262 ALKATETZA-DEKRETUA-- F.A.O.- Administrazio-espedita jendaurrean jartzea.

2018/263 ALKATETZA-DEKRETUA-- I.A.G.- Eraikite- eta eraiste-hondakinak kudeatzeagatik fidantza eskatzea.

2018/264 ALKATETZA-DEKRETUA-- Otsailetik maiatzera bitarteko fakturak onestea, Alday Fundazioari, EALZ kudeatzeagatik.

2018/265 ALKATETZA-DEKRETUA-- Ekaineko nominak eta aparteko ordainsaria ordaintzea onestea, funtzionarioei, kontratupeko langileei eta alkateari.

2018/266 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.T.A.V.- Obrak egiteko udal-lizentzia ematea nekazaritza-txabola bateko teilatua birgaitzeko.

2018/267 ALKATETZA-DEKRETUA-- Udalkideen ekarpen ekonomikoa onestea, ekainerako.

2018/268 ALKATETZA-DEKRETUA- Iñaki Álavak lan-kontratuari uko egitea onestea, eta J. Angel Biguri kontratatzea 2018ko zerbitzu anitzetarako langile gisa.

2018/269 ALKATETZA-DEKRETUA-- Alderdi politikoek ekarpen ekonomikoa onestea (ekaina).

2018/270 ALKATETZA-DEKRETUA-- Kiroldagiko kuotak ordaintzeko emandako eta ukatutako diru-laguntzen ebazpena, 2017.

2018/271 ALKATETZA-DEKRETUA-- HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEA.- Frogatutzat ematea 2017ko diru-laguntzaren justifikazioa partzialki ez dela bete, eta diru-laguntza horren zati bat ematea.

2018/272 ALKATETZA-DEKRETUA-- F.A.O.- Hirigintza-ordena leheneratzeko espedita hastea, obrak lizentziarik gabe egiteagatik.

2018/273 ALKATETZA-DEKRETUA-- E.V.C.- Obra-lizentzia emateko espedita izapidetzeari uko egitea onartzea.

2018/274 ALKATETZA-DEKRETUA-- N.L.E.- Agiri gehiago eskatzea hondakinak kudeatzeagatik jarritako fidantza itzultzeko.

2018/275 ALKATETZA-DEKRETUA--M.I.F.M.- OHZren hobaria ematea.

2018/276 ALKATETZA-DEKRETUA-- N.L.E.- Agiri gehiago eskatzea Izoriako etxebizitza lehen aldiz okupatzeko behin-behineko baimenarekin lotuta.

2018/277 ALKATETZA-DEKRETUA- NORTEGAS ENERGÍA DISTRIBUCIÓN SAU. .- Udalari ordaindu beharreko kopurua jakinaraztea, 2018ko 2. hiruhilekoan jabetza publikoko lokalaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

2018/278 ALKATETZA-DEKRETUA-- Ned Suministro GLP SAU.- 2018ko 2. hiruhilekoan jabetza publikoa okupatzeagatik tasa likidatzea.

2018/279 ALKATETZA-DEKRETUA-- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua. 2018ko lankidetzahitzarmenaren diru-laguntzaren % 100 ordaintzea.

2018/280 ALKATETZA-DEKRETUA--Amor Misericordioso ikastetxea. 2018ko lankidetzahitzarmenaren diru-laguntzaren % 80 ordaintzea.

2018/281 ALKATETZA-DEKRETUA-- MA.A.G. 2018ko hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariagatik.

2018/282 ALKATETZA-DEKRETUA-- E.M.H. eta MC.G.B. 2018ko hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariagatik.

2018/283 ALKATETZA-DEKRETUA-- A.P.F. Hiriko OHZren salbuespena ematea.

2018/284 ALKATETZA-DEKRETUA-- BFari Arespalditzako EALZko ekipamenduetarako laguntza eskatzea.

2018/285 ALKATETZA-DEKRETUA-- Gizarte Segurantzako kuotak onestea, maiatza.

2018/286 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.R.D.B.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea.

2018/287 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.A.M. O.- Hirigintza-ordena asaldaturik leheneratzeko espeditentea hastea.

2018/288 ALKATETZA-DEKRETUA-- MB.A.O. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

2018/289 ALKATETZA-DEKRETUA-- V.Z.Q. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

2018/290 ALKATETZA-DEKRETUA-- N.S.D. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

2018/291 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.P.V. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

2018/292 ALKATETZA-DEKRETUA-- JM.R.B. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

2018/293 ALKATETZA-DEKRETUA-- JJ.C.C. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

2018/294 ALKATETZA-DEKRETUA-- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzeko eskaera onartzea.

2018/295 ALKATETZA-DEKRETUA-- Y.M.B. Bitarteko funtzionario izendatzea administrari laguntzaile lanposturako, oporrak betetzeko.

2018/296 ALKATETZA-DEKRETUA-- ITZALDE ABESBATZA.- 2017ko diru-laguntzaren zati bat itzultzeko eskatzea, ez justifikatzeagatik.

2018/297 ALKATETZA-DEKRETUA-- MENAGARAIKO EMAKUME TALDEA.- 2017ko diru-laguntzaren zati bat itzultzeko eskatzea, ez justifikatzeagatik.

2018/298 ALKATETZA-DEKRETUA-- Espeditentea jendaurrean jartzea.- I.P.D.L.P.

2018/299 ALKATETZA-DEKRETUA-- Etxegoien A. Batzordea.- Udalaren obra-lizentzia ematea bi trafiko-seinale jartzeko.

2018/300 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.M.G.G.- Udalaren obra-lizentzia ematea eraikin bateko terraza estaltzeko.

2018/301 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.M.U.P.- Fidantza ordaintzeko eskatzea, Menagaraiko eraikuntza osagarri batzuk eraisteko obretako eraikitze- eta eraiste-hondakinak kudeatzeagatik.

2018/302 ALKATETZA-DEKRETUA-- I.B.I.- Espeditentea jendaurrean jartzea.

2018/303 ALKATETZA-DEKRETUA-- L.U.S.- Epearen luzapena ematea eskatutako agiriak aurkezteko.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta honako dekretu hauei buruz galdetu du:

- 2018/252 Dekretua- Luiaondoko kirol-pista berritzeko obrei dagokien hirigintza-txostena onartzea.  
Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) argitu du kontua dela hirigintza-araudia betetzeari buruzko txostena onartzea, Aldundiak eskatu digulako, 2018ko Obra Txikiak Egiteko Laguntza Programaren barruan, “Luiaondoko kirol-pista zaharberritzeko” obrarako.
- 2018/267, 2018/269 eta 2018/285 Dekretuei buruz, galdera tekniko bat egin nahi dute: ea gastuei dagokien eta onespena dekretu bidez egin behar den; orain arte ez zen hala egin, eta adierazi dute ez dutela egoki ikusten.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hala dela.

- 2018/272 Dekretua.- F.A.O.- Hirigintza-ordena leheneratzeko espedientea hastea, obrak lizentziarik gabe egiteagatik eta 2018/287 Dekretua.- M.A.M. O.- Hirigintza-ordena asaldatua leheneratzeko espedientea hastea.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du jakin nahiko lukeela zein hirigintza-espedientez ari diren.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bi espedienteak ikusi ahal izango dituela idazkariarekin.

- 2018/295 Dekretuari buruz galdetu du, ea nor ordezkutzen duen izendatutako pertsonak.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Mariaren oporrak betetzeko dela.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du orduan ez duela ulertzen; izan ere, administrari bat ordezkutzen badu administrari moduan kontratatu beharko litzatekeela haren funtzioak betetzeko ordezkutzen dena.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du administrari laguntzaile moduan kontratatuta dagoela dagoen enplegu-poltsa bakarra administrari laguntzailearena delako.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du ez duela ulertzen nola ezin den administrari izendatu ez dagoenean beste lan-poltsarik, eta, gainera, hori baldin bada egingo duen funtzioa.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza eta esan du berak ere galdetu behar zuela 2018/252, 2018/272 eta 2018/287 Dekretuei buruz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **8.- Galde-eskeak.**

➤ AIARA BATUZek ez du galde-eskerik.

➤ EH-BILDUK Tramame eta Remairen espedientearen egoerari buruz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren aholkulari juridikoaren komunikazio bat jaso dela. Bertan, jakinarazten da Tramame eta Remai merkataritza-etxeei zehapen-espediente bat ireki zaiela.

Adierazi du aholkulari juridikoak jakinarazi digula alegazio-epe bat dagoela, uste duenaren arabera 10 gehi 15 eguneko epekoa, ez dezaten babesgabetasuna alegatu. Adierazi du, bestalde, erantzukizun zibileko aseguru aurkeztea falta zitzaiela, ez baitzeukaten indarrean, eta hori aurkeztu dutela jada. Gehitu du alegazio-epean dokumentazioa aurkeztu beharko dutela, eta ikusiko da zer zuzendu duten.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du esan zitzaiela pertsona baten sinadura falta zela, eta ondoren aztertuko zela egin zitzaizkien eskakizunen betetze-maila, eta ez bazuten betetzen, jarduera etengo zela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburuak (EAJ-PNV) berriz ere esan du alegazio-epean daudela.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) esan du itxi egingo dutela, ezinbestean. Jarraian, adierazi du esan zela eskatuko zitzaizela beharrezko aldaketak egiteko, eta ez bazituzten betetzen jarduera etengo zitzaizela, eta dena den materiala ekartzen ari dira oraindik. Galdetu du zein egunetan sinatu zen espediente hori, egun interesgarria da-eta epea zenbatzeko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du berari jakinarazi ziotela agindua ekainaren 15ean sinatu zela, baina berak ez dakiela noiz jakinarazi zen, eta jakin beharko litzateke noiz jakinarazi zitzaizen espedientea ireki zela, alegazio-epea zenbatzeko.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du garrantzitsuena dela noiz jaso zuten jakinarazpena espedientedunek.

- Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU), aurreko akta onesteko puntuan adierazi den moduan, idazkariari eskatu dio, egoki ikusten duen moduan, 2018ko maiatzaren 17ko Udalbatzaren osoko bilkuran egin zituen galdera zehatzak jasotzeko, eta aipagai duen hitz-hartze hori irakurri du.

Idazkariak eguneko gaien zerrendako puntu honetan Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) eman dion hitzez hitzeko mintzaldia jaso du, 2018ko maiatzaren 17ko Udalbatza osoaren bilkuraren aktan ez zegoena jasota; honela dio:

“REMAI TRAMAME GAIAREN ONDOREN

50,14.-

Esteban

Batzordean, plan orokorraren alegazioen igorpenaren gaia landu zen, eta ez dugu ezer jaso oraindik. Ez dakit zein den arrazoiketa, eta are gehiago, uste dut gutxietsi egiten gaituztela nolabait; izan ere, hasieran, konbentzitu nahi nauzue datuen babeserako legeagatik ezin zaizkigula datuak eman. Nik dokumentazioa daukat, Udaleko zinegotzia naizenez gero, eta pertsonen NANak eta lursailen jabeak agertzen dira, besteak beste.

NAIARAREN ETA GENTZAREN AZALPENAREN ONDOREN

57,50

Ez nago ados diozunarekin, eta galdetzen dut ea zertan aldatu den legea 2015etik; izan ere, 2015ean datuak eman zenizkiguten eta orain ez. Azal diezadakezu noiz aldatu den legea? Maiatzaren bukaeran sartuko da indarrean.

Gentza.-

Jakinda lege berria maiatzean sartuko dela indarrean, zer egingo dugu, beste alde batera begiratu?

Esteban.-

Nik apirilaren 16an eskatu dut; beraz, ez dakit. Legea atera arte ez da eraginkorra.”

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hamalauak eta berrogeita bi minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera

daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko uztailaren hemezortzian.

O. E.:

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: M<sup>a</sup> Carmen Rojo Pitillas.